



KOOLAB

Egotetik egitera

Gurasoen txokoa LOMCEri aurre eginez
Zertan gabiltzan Batxilergoko ikasleen agurra

agenda

APIRILA

LEHEN HEZKUNTZA

6.maila: Iztueta baserriko lana ezagutzeko irteera.

DBH

1. maila: Sare sozialak eta pribatasuna.

BATXILERGOA

Amerikaren bisita.

MAIATZA

MAILA GUZTIAK

LOMCEri buruzko hitzaldia.

HAUR HEZKUNTZA

3 urtekoak: Altzagako Abali baserri irteera.

4 urtekoak: Oiangura.

5 urtekoak: Ekogune baserri eskolara bisita.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: Irungo Oiaso museora irteera.

1. maila: Ordiziako Okorro parkera txangoa.

2. maila: Ordiziako Arbela aroztegi irteera.

2. maila: Herriko gaztandegi kooperatibara.

2. maila: Nafarroako Sendavivara irteera.

3. maila: Alkizako Ur Mara museora bisita.

5. maila: Gernikako Bakearen Museora.

5. maila: Ordiziako azokara irteeraxoa.

6. maila: Donostiako Orkestra Sinfonikoaren kontzertura.

DBH

Maila guztiak: Segurara eta Zerainera irteera.

Maila guztiak: Gurasoentzako Patxi

Izagirrerekin Doluaren inguruko saioa.

1. eta 2. maila: Dar-dar aldearen eskutik

eskubide lanketa.

3. eta 4. maila: Irakurketa multikulturala.

4. maila: Elkartasun bizkotxoa.

BATXILERGOA

Ate irekien eguna.

EKAINA

OROKORRA

Kultur astea.

Ikastolaren Eguna.

HAUR HEZKUNTZA

2-3 urtekoak: Ur festa ikastolan.

2 urtekoak: Baliarrainera txangoa.

3 eta 5 urtekoak: Oriora egun pasa.

4 urtekoak: Donostiako Aquariumera irteera.

LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailak: Legazpiko Mirandaolara

bisita.

3. eta 4. mailak: Sastarrainen dagoen Baserri

Eskola ezagutzeko irteera.

5. eta 6. maila: Arabako Zuhatzara bidaia.

DBH

1.-2. eta 3. maila: Jolas eta Ekineko ekintzak (Nepal, Basherriak eta sareko kideak eta Kongoko bizi esperientziak).

1. maila: Villanañera irteera.

2. maila: Obxagabiara irteera.

3. maila: D'elikatuzek antolatutako pintxo

lehiaketa.

3. maila: Norbanakoen eskubideen lanketa

Garaguneko kideekin batera.

3. maila: Hondartzara egun pasa.

3. maila: Kidetze esperientziak.

3. eta 4. maila: Mikro ipuinen sari banaketa.

4. mailakoak: Parisera.

BATXILERGOA

Selektibitateko azterketak.



AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria

Ikasturtea, hasperen motz bat

Ekaina gogoeta garaia izaten da gurean. Atzera begira jarri, aztertu, hausnartu eta aurrera bidea egiteko proposamen garaia. Ez da ariketa erraza suertatzen, ia gertatutako erdiak ahaztu baititugu bidean.

Iraila eta urria ez ziren errazak izan. Gaixotasun eta baja ugarirekin hasi genuen ikasturtea, eta horrek nahastu zituen gure ikasturtea lasai hasteko asmoak. Baina konturatu orduko Eguberri kantetan murgildu eta Olentzerori atea zabaltzen ari ginen.

Urte berriarekin bat, kontzertazioak argitu, danborrak prestaten hasi eta martxan jarri ginen. Orduan ere ohartzerako ihauteriak, mozturroak,

musika... Eta Aste Santuko postre gozoak usaitu genituen.

Azken hiruhilekoa motz. Motz baina sakon. Ikasturterari amaiera eman behar, hurrengo planifikatu eta guzti horren tartean ebaluazio diagnostikoa, irteerak, ebaluazioak...

Pasa dira 9 hilabete eta erditze minak baino, amaierako hasperenak entzuten ditut inguruan. Urtea azkar pasa da. Eroritako hortzek ia badute bestea tiraka, moztutako ileak ere ia melena luze bihurtu dira, eta landutako haziak loratzen hasita daude dagoeneko.

Azkar pasa da urtea, azkar hilabeteak...

Irailean noiz?

Amaitu orduko, hasierako datak lotuta. A ze komerial! Irailean berriro ere argitaratuko ditugu, baina eskura izan ditzazuen hona hemen datak:

ETAPA	DATAK	ORDUTEGIA
Haur Hezkuntza	Irailaren 7tik 18ra Irailaren 21etik aurrera	Goizeko 9:00etatik 12:30era Goiz eta arratsalde
Lehen Hezkuntza	Irailaren 7tik 18ra Irailaren 21etik aurrera	Goizeko 9:00etatik 12:30era Goiz eta arratsalde
DBH	Irailaren 7tik 18ra Irailaren 21etik aurrera	Goizeko 8:30etatik 14:30era Goiz eta arratsalde
DBHO	Irailaren 10ean aurkezpena Irailaren 12tik aurrera	Goizeko 11:00etan Ordutegi arrunta

UN LEVE SUSPIRO

Junio es época de reflexión. Momento para mirar hacia atrás y analizar, reflexionar y comenzar a proponer nuevos retos. No es un ejercicio fácil, ya que la mitad de los acontecimientos ya están en el olvido. Septiembre y octubre no fueron fáciles. Comenzamos el curso con muchas bajas, y eso trastocó la intención de comenzar el curso con tranquilidad. Pero para cuando nos dimos cuenta, ya estábamos cantando villancicos y abriendo la puerta a Olentzero. Coincidiendo con el nuevo año, estábamos preparando los tambores, y antes de darnos cuenta estábamos disfrutando de los ricos postres de Semana Santa. El último trimestre ha sido corto. Corto pero intenso. Terminar el curso, y comenzar a preparar el siguiente entre evaluaciones, excursiones, evaluaciones del diagnóstico... Han pasado 9 meses, y ya se escuchan los últimos suspiros. Los cortes de pelo ya son largas melenas, y las semillas que plantamos ya han comenzado a florecer. Qué rápido se ha pasado el año, qué rápido los meses...

LOMCEren aurrean planto!!

Espainiako Gobernuak ezarritako LOMCE legearen hainbat agindu jaso ditu Eusko Jaurlaritzak Heziberri hezkuntza planean. Agindu horietako bat da lehen hezkuntzako hirugarren mailan kanpo ebaluazioa egitea. Hala, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 30 ikastetxe aukeratu dituzte zortzi eta bederatzirteko ikasleei diagnosi azterketa egiteko. Eta 30 ikastetxe horietako bat gurea izan da.

Froga hauek eragin zuzena dute familietan, ikastetxeetako zuzendaritzan eta irakasleengan. Gainera, froga hauek LOMCEren ezarpenean beste pauso bat besterik ez dira, jarraian inposatu nahi diren Bigarren Hezkuntzako eta Batxillergoko Errebaliden aurrerapena, alegia.

LOMCEren baitako azterketa hauek hezkuntza konpetentziei erabateko eraso egiten die, hezkuntza zentralizatu eta kontrolatzea dute helburu eta sekulako inboluzioa suposatzen dute arlo pedagogikoan. Are gehiago, oinarizko hezkuntzan, ikasleen segregazio goiztiarra bideratzen dute eta bertan behera uzten dute, bereziki DBHko Errebalida gainditzen ez duten ikasleen hezkuntza-ibilbidea.

Hala, gurasoak izanik ebaluazio diagnostiko hauekin zuzenean eragina dugunak, egoerari aurre egiteko geneuzkan aukerak aztertutik, eta gure seme alabei froga hau egin diezaieten ekiditeko, azterketak egiteko iragaritako egunetan gure seme-alabak ikastetxera ez eramatea erabaki genuen bilera batean.

Iragarritako azterketak ez egitea lortu genuen, eta jendetza elkartu genuen herriko plazan LOMCEri ez! ozen esateko; eta ezin uka, pozik gaude lortutako emaitzarekin, baina LOMCE legearen aurka borrokan jarraitu behar dugu.



IKASTOLAREN EGUNA

Urtero ohi dugunez, aurten ere, giro ezin hobean ospatu dugu IKASTOLAREN EGUNA. Goiza ondo hasteko, DBHkoen koreografia eta abesbatzaren emanaldia izan genituen hamaikak aldera.

Ondoren, HHkoek mozorro festa antolatu zuten herriko plazan. Ez ziren atzera begira egon LHkoak, izan ere, joko kooperatiboetan, betiko jokoetan eta altxorraren bila aritu ziren jo eta su.

Bazkaltzeko elkartu ginen guztiok eta bapo asetu ondoren, DBHkoek dantzaldia eta kontzertua eskaini ziguten. Egun gogoangarria benetan guraso, ikasle eta irakasleok elkarrekin bizi izan genuena.

NO A LA LOMCE!

Parece ser que estos días el Gobierno Vasco, siguiendo con la implantación de la LOMCE, ha dispuesto realizar en 30 centros de la CAPV pruebas piloto de diagnóstico al alumnado de 3º de primaria. Si bien estas pruebas, denominadas de diagnóstico, tienen incidencia directa sobre las familias, las direcciones de los centros y el profesorado, lo que nos preocupa es que suponen un nuevo paso en el marco de implantación de la LOMCE, y un avance de las Reválidas que se quieren imponer tras superar la Educación Secundaria Obligatoria y el Bachillerato, para la obtención de los títulos correspondientes para avanzar en el itinerario educativo.

Estas pruebas atacan de modo contundente las competencias educativas, buscan centralizar y controlar la educación y suponen una enorme involución pedagógica. Aún más, prevén, en el tramo de la Educación Secundaria Obligatoria, una segregación precoz del alumnado e impiden a los que no supere la Reválida prevista para la obtención del Título de Educación Secundaria, el acceso a los itinerarios de formación actuales. A lo largo de los últimos años, meses y de manera especial las últimas semanas, la comunidad educativa ha manifestado con claridad su oposición a este tipo de exámenes.

En este contexto, los padres/madres del alumnado directamente afectado con dicha prueba nos reunimos y valoradas las opciones que teníamos de hacer frente a la situación descrita, decidimos no enviar nuestros hij@s al centro esos días. No cabe duda que estamos muy contentos con el resultado obtenido, pero debemos seguir trabajando en contra de la ley LOMCE.

KOOLABORATEGIA, 'DO IT YOURSELF'

Informazio hartzaile pasiboak izatetik, informazio sortzaile aktiboak izatera pasa gara, eta bide horretan bat egin du Jakintza Ikastolako komunitateak ere. Koolaborategia proiektua garatu da aurtengo ikasturtean, teknologia berrien inguruan ikertuz eta ekinez, ikaslea protagonista bihurtuz. Oporretan udalekuak ere egingo dituzte koolaborategian.

Interneten eman den garapenaren ondorioz, informazio hartzaile pasiboak izatetik, informazio sortzaile aktiboak izatera igaro gara, eta horrek eragin zuzena izan du gizartean. Baina baita eskola komunitatean ere.

Egun, ikasle guztiek euren informazio beharrak asetzeko behar dituzten baliabideak eskura dituzte eskoletan; baina laster, guztiek izango dituzte edozer eraikitzeko, sortzeko eta fabrikatzeko baliabideak. Eta horrela, jakitea eta egiten jakitea eskutik joango diren bi kompetentzia klabe izango dira. Horrek, baina, egungo eskola egitura aldatzea ekarriko du, oraindik existitzen den lan-intelektualaren eta esku-lanaren arteko muga desagerraraziz.

Jakintza Ikastolak ikuspuntu hori garatzeko bideari ekin dio ikasturte honetan, eta hor kokatu du Koolab proiektua. Dagoeneko ikastolan martxan duden beste egitasmo batzuekin bat eginda, «teknologia



berrien inguruan ikertzea eta ekitea da koolaborategiaren helburua». Prozesu horretan, gainera, ikaslea da protagonista, eta «prozesu horretatik jasotako ezagutzak, ikaslearen garapen integralaren mesederako izateaz gain, ikastolako komunitatearen eta Ordizia osoaren ondasuna bihurtu nahi dira».

Jakintza ikastolan teknologia berrietara bideratutako gunea egokitu dute, Jokin Lacalle irakaslearen gidaritzapean. Gunearen kudeatzaileak, ordea, ikasleak beraiek dira, eta ikastolako ikasle ohiek zein gurasoek ere ateak zabalik dituzte.

Izan ere, proiektuaren beste helburuetako bat jasotako edukiak komunitate osoa zabaltzea da. Horretarako, «komunitate osoa formazio horretatik baliatzeko bideak» ezarri behar dira.

Koolaborategiaren helburu nagusia «ikasleak bizi diren

testuinguru eta jarduera eremu partikular eta unibertsalean bizitzeko ezinbestekoak diren oinarriko kompetentzia orokorrak eta espezifikoak garatzea da». Hala, ikastolaren ardura da dagoeneko gizartean indarrean dauden eta etorkizun laburrean errealitate bat izango diren teknologia digitalen inguruan behar duten eta beharko duten formazioa ikasleei eskaintzea.

Eta horixe egin dute Jakintzan. Mota guztietako erreminta eta prototipo eta fabrikazio azkarreko makina digitalen eskutik, eskulan, sukaldaritza, arte, zientzia, eta teknologiaren esparruetan sortze, ikertze, eta esperimendatze



prozesuak aurrera eramaten dituen espazio irekia eta kolaboratzailea jarri dute ikasleen eskura.



ENEKO DIAZ

«Zeuden beharrak aztertzea izan zen lehen egitekoa»

Prozesua gustuko dute

Koolaborategian leku berezia bete duten ikasleen artean daude, Eneko Diaz, Arkaitz Sukia, Eñaut Galparsoro, Jon Insausti, Ibone Aiestaran eta Anthony Nazabal. Jokin Lacallerekin batera koolaborategiaren ardura izan dute, eta azaldu dutenez, orain arte teknologia eskoletan egiten zutenetik nabarmen aldatu da lan

egiteko modua: «Erabat ezberdina da lan egiteko modua, etorkizunean baliagarri izan ditzakegun makinaren funtzionamendua ikasi ahal izan dugu, ardurak izan ditugu eta etorkizuna zein bidetatik etorriko den ezagutu ahal izan dugu».

Eneko Diezek kontatu duenez, «proiektua garatzen hasitakoan zeuden beharrak aztertzea izan zen lehen egitekoa». Jokinekin batera zeuden beharrak zerrendatu eta «denean artean erabaki genuen zer erosi, nola egokitu... taldean lan egiten ikasi dugu, denon artean erabakiak hartzen».

Hori dena, koolaborategitik kanpo ere ematen dela esan dute ikasleek. Izan ere, teknologia gelatik kanpo ere garatu dituzte balio horiek, ikasle gazteagoekin edo ikasle


ohiekin aritu baitira lanean. Ikastetik praktikara igarota ere, proiektuak garatzeko gaitasuna landu dute ikasleek, taldean aritzeak duen balioa nabarmenduz.

Arkaitz Sukiaren arabera, etorkizunera begirada bat botatzea izan da ikasturtean zehar koolaborategian aritzea. «Enpresetan nola lan egiten den ikasteko aukera izan dugu, katean lan egiten, eta nik egindakoa beste baten eskuetara joango dela ikusi dugu. Horrek arduraz lan egiten erakutsi digu, eta ardurak banatu



IBONE AIESTARAN

«Guk ikasitakoa ikasle gazteagoei erakutsi diegu»



ditugunez, bakoitzak bere zatia ondo betetzea garrantzitsua dela konturatu gara».



**JON
INSAUSTI**

«Gustura aritzeko eta ikasteko aukera eman digu Koolabek»

Etorkizunerako abantaila

Ikastolan ikasitakoa etorkizunean oso baliagarria izango dela garbi dute koolaborategian aritu diren sei ikasleek. Eñaut Galparsorok esan duenez, «makinen erabilera nolakoa den ezagutu dugu, eta teknologiaz inguratuta gaudenez oso baliagarria da hori».

Egun eskuartean erabiltzen ditugun gauzetako asko nola eginda dauden eta nola egiten diren ikasi dute ikasturte honetan zehar; tartean, giltzatakoeak egin dituzte, adibidez; plastiko gogorrari nahi den itxura eman eta udako oporretan



**ARKAITZ
SUKIA**

«Arduraz lan egiten ikasi dugu, bakoitzak bere ardurak izan baititu»

egingo diren udalekuetarako egin dituzte giltzatakoeak; H&E2015 irudia egin dute.

Ikasketa prozesuan zehar, gainera, asko disfrutatu dutela azpimarratu du Jon Insaustik. «Guk landu ditugu proiektuak, erakutsi egin dugu egin duguna eta etorkizunerako abantaila izateaz gain gustura aritzeko eta ikasteko aukera eman digu Koolab proiektuak».

Eta ezin uka ikasleentzat ez ezik, gurasoentzat eta eskolaz kanpoko erabiltzai-leentzat ere interesgarria izan dela proiektua. Horren adibide dira, esaterako, Jakintza Ikastolan ikasketak bukatu eta ingenieritza

ikasketetako azken proiektua garatzeko koolabo-rategia erabili duten ikasleak.

Eman eta jaso


Izan ere, dena ez da ikastea izan koolaborategian. Eman eta jaso egin dute ikasleek. Ibone

Aiestaranek kontatu duenez, «jakintza gehiagorekin bukatu dugu ikasturtea; baina guk ere zabaldu dugu jakintza. Ikasle gazteagoekin

**EÑAUT
GALPARSORO**
«Bizitza errealean erabilgarri izango ditugun teknologiak ikasi ditugu»

aritu gara lanean, eta guk ikasitakoa gu baino gazteagoak diren ikasleek erakutsi diegu haiek ere teknologia berriak ezagutu ditzaten».

Bide horretan antolatu ditugu aurten lehen aldiz udaleku teknologikoak. Eta koolaborategiak eman dituen emaitzak onak izan direla dudarik ez dago, uste baino ikasle gehiagok eman baitu izena.



KOOLAB, PROYECTO 'DO IT YOURSELF'

En poco tiempo, y con el desarrollo de Internet, hemos pasado de ser meros receptores a creadores activos. Y apoyándose en esa realidad la comunidad de Jakintza ha desarrollado durante este curso el proyecto Koolab, basado en las nuevas tecnologías, donde los alumnos y alumnas trabajan con ellas, siendo los propios alumnos los principales protagonistas. Todo este desarrollo ha generado grandes cambios en la sociedad, pero también dentro de la comunidad escolar.

Hoy en día, los alumnos disponen de toda la información necesaria para satisfacer sus necesidades; y en poco tiempo a todo ello se le sumara la opción de crear, construir o fabricar. Así irán de la mano el saber y el saber hacer, dos competencias claves. Todo ello traerá consigo un cambio en las estructuras escolares, haciendo desaparecer el límite entre el trabajo intelectual y el trabajo manual.

El proyecto Koolab desarrollado por Jakintza, esta dirigido a este nuevo cambio. Así, uniendo distintos proyectos que ya estaban en marcha, Koolab pretende ofrecer a los alumnos la opción de investigar y conocer las nuevas tecnologías. Es Jokin Lacalle el que lleva las riendas del proyecto, pero son los propios alumnos los gestores de Koolab, el cual esta abierto a todos los padres o ex alumnos de Jakintza.

Según han comentado los alumnos Eneko Díaz, Ibone Aiestaran, Jon Insausti, Arkaitz Sukia y Eñaut Galparsoro, gracias a Koolab han podido conocer de primera mano «maquinas que nos podrán ser útiles en el futuro. Además todos hemos tenido responsabilidades, las cuales estaban ligadas unas a otras, y eso nos ha enseñado a valorar el trabajo en grupo y la importancia que esta tiene». Los conocimientos obtenidos durante todo el curso les serán muy útiles en el futuro, «ya que estamos rodeados de tecnología», han comentado. Así, todos esos conocimientos, además de interiorizarlos, también los han podido extender entre alumnos más jóvenes. De ese modo, son todos los integrantes de la comunidad escolar los que se benefician.

Los alumnos de Jakintza están muy satisfechos con el proyecto, y reflejo de ellos la cantidad de alumnos que se han apuntado en las colonias tecnológicas que ha organizado Jakintza para estas vacaciones.

NEPALEKIN BAT!

Jakintza ikastolako DBH 4ko ikasleok aurtengo ikasturtean «Mundu hobea gure esku dago» proiektuan hainbat egitasmo garatu ditugu. Azken hilabeteetan, gure gertutasuna eta laguntza Nepalgo herriari eskaini nahi izan diogu, jasaten ari diren hondamendiagatik. Horretarako, hainbat ekintza burutu ditugu maiatzean eta ekainean zehar.

Gure proiektua Elkartasun Bizkotxo Egunarekin hasi zen; hau da, euro baten truke etxean egindako bizkotxoak saldu genituen, eta arrakasta handia izan zuen ekintzak. Baina, hori ez zela nahikoa eta azken asteetan gelaz gela aritu gara familiek borondatez eman dituzten jostailuak biltzen; ondoren, merkatu bat antolatu genuen herrian.

Ekainaren 10ean eta 12an, plaza nagusian buru-belarri dihardu gara bildutako jostailuak saltzen. Hori gutxi balitz, Ikastolaren Egunerako ere ekitaldi berezi bat prestatzeko



konpromisoa hartu genuen. Bertan, musika, dantza estilo desberdineko koreografiak, bertsoak... izan dira ikusgai.

Luzatutako gonbidapenak oso harrera ona izan du eta, hori dela eta, DBH4ko ikasleok eskerrak eman nahi dizkizuegu proiektu hau aurrera eramaten lagundu diguzuen pertsona guztioi.

UR FESTA!

Plisti-plasta, plisti-plaust mela-mela eta blai-blai... abestiak dioen bezala ibili ziren 2 eta 3 urteko haurrak urarekin jolasean ikastolako jolastokian. Baina ez euritan eta katuskekin, ez ez, eguzkitan eta txankletekin baizik.

4 eta 5 urtekoak irteeran zirelako ikastolan bakarrik zeudela aprobeztatuz, kanpoko jolastokian hainbat ur jolasetan parte hartzeko aukera izan zuten gure txikitxoek: globoak urez bete eta elkarri pasatzen edo pilota jokoan bezala hormaren kontra botatzen, iturrian ontziak betetzen, urez betetako kuboak batetik bestera txingatan eramaten...

Baina gehien-gehien beraien buruak eta laguntxoak bustitzen gozatu zuten. A ze gozatu! A ze oihuak eta algarak! Argazkian ikusi besterik ez dago ze ondo pasa zuten haurrek eta irakasleek!



IKASLEEN TXOKOA



Ikasturte honetan Curriculumean txertatu ditugun proiektuen artean IKASLEEN TXOKOA egokitzen aritu dira ikasleak, eta kurtso amaieran inaugurazio ekitaldia egin da. Lan eta ilusio handia jarri dute gure ikasleek proiektu honetan, eta bere lanaren emaitzaz gozatzeko aukera izango dute bai beraiek bai beste ikasle guztiak ere. Ikasleek zuzendaritzan aurkeztu zuten proiektua eta behin baimena jasota, erabiltzea besterik ez da geratzen!

Los alumnos de 4 de ESO han seguido trabajando en el proyecto «Mundu hobea gata», donde este trimestre se han centrado, por ejemplo, con Nepal. Han desarrollado varios proyectos para poder recoger juguetes para los niños nepalís, los cuales los han vendido en la feria semanal de Ordizia. También han celebrado el día del bizcocho y el dinero recaudado lo han destinado a la ayuda para Nepal. Todo ello ha sido posible gracias a la colaboración de la gente, por lo cual, los alumnos han querido dar las gracias a todas las personas que les han ayudado.

Por otra parte, los niños de 2 y 3 tres años han aprovechado la excursión de los mayores para salir al patio y jugar con agua. Han llenado globos de agua, los cuales los han lanzado contra el suelo, o han jugado con los cubos llenos de agua. Pero sobre todo, con lo que más han disfrutado ha sido mojándose ellos mismos o mojando a los compañeros.

Otro proyecto que han desarrollado los alumnos de Jakintza durante este curso y dentro del Curriculum ha sido Ikasleen Txokoa. Un espacio solo para alumnos, donde han sido ellos mismos los que han trabajado en el espacio. Ahora toca disfrutar de ese espacio, tanto los alumnos que han trabajado en el espacio como el resto de alumnos de Jakintza.

AZOKARA IRTEERA

Kaixo gu 5.mailako ikasleak gara. Oraingo honetan herriko azokara joan gara, hileko azkeneko asteazkenetan, sukaldari batek garaioko produktuekin plater bat sukaldatzen duelako. Ikastolan, elikagaien gaia lantzen ari garenez oso interesgarria dela iruditu zaigu.

Plazara iritsi garenean, Aitor Laskurain izeneko sukaldaria ikusi dugu, zainzuriekin eginiko plater bat prestatzen. Zainzuriak prestatzen ari zen bitartean, guk plater hori egiteko behar dituen osagaiak eta pausoak idatzi ditugu. Ondoren egindako platera dastatzeko aukera izan dugu, eta asko gustatu zaigu!

Goizari bukaera on bat emateko, azokaren giroan murgildu eta bertan zeuden postuetako saltzaileekin solasean ibili gara eta produktu desberdinak probatzeko aukera izan dugu. Berrito errepikatuko genukeen esperientzia izan da, eta guk egin dugun pintxo erakusketarako oso lagungarria izan dela iruditu zaigu.



AMERIKAKO EKIN

Apirilaren 15ean etori zitzaizkigun gurera hogeita hamar bat estatu batuar. Raul Lacallek luzatu zigun proposamena eta, ikasteko ahaleginetan gauden honetan, aukera ezin hobea zela pentsatu genuen. Helburuen artean, ingelesa, baina xede garrantzitsua izan zen era berean munduan zeuden beste errealitate batzuk ezagutzea, haiekin hitz egitea eta gure ezagutza orokorra zabaltea.

Ernest Hemingwayren *The sun also rises* (gaztelaraz, Fiesta) eleberria irakurrita zuten ikasle autobuskada etortzekoa zen, mendi buelta bat eman, bazkari legea egin...Gure batxi 1eko ikasleekin elkartzeko plana egin genuen eta gazteak aztoratu zitzaizkigun: zer esan, nola pasa denbora, zertaz hitz egin, zer erakutsi, zer egin...

Eta... etori ziren azkenean! Gureak denak alde batean; haiek, berriz, beste batean... Lortuko ote genuen harreman hori gauzatzea? Giroa jarri nahain, gure euskal dantza erakutsi genien... Jakin nahia piztu zitzaien eta batek baino gehiagok galdetu zuen horri buruz.

Eguraldiak, behintzat, gure alde egin zuen. Ez zen aurreko egun dotorea argitu eta lainoan eta ia haizeak eraman beharrean ibili ginen, baina... ez zuen *tipical basque* xirimiriak protagonismorik hartu eta ondo baino hobeto geratu zitzaigun mendi buelta. Ez genuen erroka zailegia ipini eta Txindoki urrutitik ikusita konformatu ginen. Azoka eguna zen eta, bazkal aurretik, hara ere jaitsi nahi genuen.

Azokara iritsi ginenean, berandu zen eta, dagoeneko azoka jasota zegoenez, herria bisitatu genuen; plazatik elizara joan ginen eta eliza barrutik ikusten ere aritu ginen.

Bazkarian oso giro polita izan zen, denak nahastuta eseri ginen eta ingelesa praktikatzeko aritu ginen. Amaitutakoan, denak altxatu ginen eta beraiek sukaldan laguntzen jarraitu zuten, platerak garbitzen... Ez dakit guk horrela helduko genion lanari...!



Toxikoen eraginpean

Espainiar talde ikerlari batzuen sareak jarri zuen abian 2006. urteko urrian INMA proiektua, besteak beste, airean, uretan eta elikagaietan egon daitezkeen elementu kutsatzaileek, umearen hazkuntzan, garapenean eta osasunean izan lezakeen eragina ikertzeko.

Horrela, Jakintza ikastolako hainbat familia ikerkuntza proiektu honetan parte hartzen ari dira. Ume hauen ingurumena eta bizi-ohiturak aztertuz, zera ondorioztatu nahi dute: alde batetik, euren inmologia-sistema eta desintoxikatze gaitasuna oso garaturik ez daudenez, elementu kaltegarri horiekin kutsatzea errezagoa dela, eta bestetik, prozesu kutsatzaile horren ondorio kaltegarriak indargabetzeko, elikadurak eta genetikak gaitasuna dutela. Geu ere osasunaren alde !!!

Los alumnos de quinto han trabajado la alimentación durante este trimestre, y que lugar mejor que la feria semanal para conocer los alimentos de cerca. Así, han aprovechado la visita del cocinero Aitor Lascurain, el cual elaboraba una receta con espárragos. Mientras Lascurain realizaba la receta, los alumnos apuntaban todos los pasos y al final de la visita degustaron el plato. Para dar por terminada visita, recorrieron la plaza para conversar con los vendedores y poder probar distintos alimentos.

Un grupo de investigadores puso en marcha el proyecto INMA en octubre de 2006. Con este proyecto pretenden analizar los elementos contaminantes que se acumulan en el aire, el agua y los alimentos, ya que estos pueden influir en el desarrollo y la salud de los niños. Son varias las familias de la comunidad de Jakintza que participan en este proyecto, donde se estudian los hábitos de cada familia. Con este estudio quieren concluir que los niños que no tienen un desarrollo inmunológico adecuado pueden contraer más fácilmente enfermedades derivadas del agua, el aire o los alimentos.

Los alumnos de Jakintza han compartido una jornada con alumnos de Estados Unidos. El primer contacto no fue fácil, pero una vez superados los primeros minutos pudieron disfrutar de un buen día dando una vuelta por el monte, visitando distintos lugares de Ordizia y comiendo todos juntos. Los alumnos de Jakintza bailaron para los americanos y pudieron practicar un poco de inglés.

KAZETARI LANETAN

DBH 2ko ikasleek erreportaje-bilduma bat egin dute. Horretarako, Ordiziako euskara-jendea identifikatu ondoren, beraiekin elkarrizketak egin dituzte eta haien testigantzetatik jasotako informazioarekin erreportajeak idatzi dituzte.

Elkarrizketarekin hitzordua telefonoz egin ondoren, zertarako elkarrizketatu nahi zuten adierazi eta grabatzeko baimena eskatu zioten. Ikasle talde bakoitzak galdetegiak aurrez prestatu eta herriko udaletxean, AEKko egoitzan eta kiroldegian elkartu ziren. Elkarrizketatutakoak hauek izan ziren: Aitzol Azpiroz (euskara teknikaria), Iñaki Hidalgo (kultur teknikaria), Rosa Lasa (ikastolako lehen andereñoa), Aitor Calvillo (AEKko irakaslea), eta azkenik, Urko Ruiz de Apodaka eta Jon Barreros (euskal musika eta jaialdien sustatzaileak).


Testigantza hauen bitartez jabetu dira gure herriko hizkuntza paisaia zenbateraino den euskalduna eta nork laguntzen duen Ordizia euskararen herria izan dadin. Bilduma osatuta ikasleek duten blogera igoko dituzte erreportajeak. Egin dituzten jarduerara asko baliabide digitalak erabiliz egin dituzte, eta behin ondorioak aterata, garrantzitsua da prozesuari amaiera egokia ematea: ikerketaren berri eman diete Jakintzako gainerako ikasleei.



ANTZERKI EMANALDIAK

Ikasurte osoan egindako lana jende aurrean azaltzeko unea izaten da askotan ikasurte amaiera. Aurtengo DBHko berrikuntzetako bat izan da proiektu ezberdinen lanketa, eta horrela, DBH 1eko ikasleek ere hainbat proiektu garatu dituzte urtean zehar. Horieta bat izan da antzerkiarena eta bertan adimen ezberdinak lantzeko aukera ezin hobea izan dute. Gorputz espresioa, ahozko eta idatziko komunikazioa, plastika... modu atseginean jorratu dituzte.

Ikasleek beraien intereseko gaietatik abiatuz, testu ezberdinak osatu dituzte eta Maider Bartolomeren gidaritzapean ikasurte osoko lanketa egin dute. Ekainaren 3an eskaini zizkiguten beraien lanak ikastolako aretoan. Emanaldiaren amaieran elkarrizketa bat izan zuten ikasleek Maiderrekin, eta bertan aipatu zituzten emanaldiari buruzko hainbat gogoeta eta balorazio. Maiderren eta ikasleen iritzia entzun eta gero, esan liteke dena ez zela pentsatu bezain ondo irten eta hobetu beharreko hainbat eremu identifikatu zirela.



Mikroipuñ lehiaketa

Aurten ere Ordiziako Udalak euskara gazteen artean sustatu asmotan mikroipuñ lehiaketa antolatu du herriko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta. Bi maila bereizi dituzte; batetik, 14-16 urte bitarteko ikasleen maila; bestetik, 16-18 urte bitartekoena. Maiatzaren 29an banatu zituen sariak Aitzol Azpiroz euskara teknikariak D'elikatuz Goierriko interpretazio zentroan.

Zalantzarik gabe abilezia handia erakutsi dute Jakintza Ikastolako ikasleek. Gazteen mailan Lide Urrestarazuk lortu zuen lehen saria *Ametsak betez* mikroipuña idatzita. Helduen artean, berriz, Iker Otaegi gailendu zen *Egun hartatik* istorioari esker. Bi irabazleek tablet bana eta Ordiziari buruzko bina liburu jaso zituzten. Ikastolako Maddi Urdangarin, Aizpea Oiarbide eta Susana Barreirori ere, saririk jaso ez arren, aipamen berezia egin zien epaile taldeak. Bejondeizuela deno! Segi idazten eta mundu berriak sortzen!



Irakurketa multikulturala



Maiatzaren 27an Ordizia Kolorek antolatuta II. Irakurketa Multikulturala egin zen Ordizian. Herriko aniztasunari ikusgarritasuna ematea eta integrazioarako bidean aurrera egitea ziren helburuak. Joxean Artzek idatzi eta Mikel Laboak musikatu zuen Txoria Txori

poema hizkuntza askotan irakurri zuten herritarrek. Horrez gain, beste herrialde batzuetako poemak errezitatu zituzten Oiangurenako eta Jakintza Ikastolako ikasleek.

Gure Ikastolako Pablo Calvok galizierazko poema bat irakurri zuen eta Natale Oiarbide euskarazko itzulpena egin. Mohammed Alik, berriz, Pakistango punjabi hizkuntzan irakurri zuen, eta itzulpena Inge Eskisabelek egin zuen. Jakintzako kide gehiago ere izan ziren ekitaldian; izan ere, Oroith Txiki abesbatzak eta Musika Eskolak jarri zieten hitzei musika, eta talde horien parte ere badira gure ikasle batzuk.

IRAGANEKO EDOZEIN MOMENTU BETI IRUDITZEN ZAIGU HOBEA

Jakintza Ikastolari dagokion gure bizitzako etapa kontsumitzear dago jada. Batzuk lehenago hasi ziren beste batzuk baino, ondoren Errumaniatik edo Ekuadorretik zetozen ikasleak iritsi, eta lagun zirela utzi gintuzten. Batzuei arrastoa galdu diegu, eta beste batzuk aldiz gure artean jarraitzen dute. Udai, Ainhoa, Ana, Xabi... ez dira gure azkeneko ikasturteetan egon, baina guztiok, gauden tokian gaudela, egunero-egunero ekiten diogu gure priektuari, oraindik non amaituko den ez dakigun proiektuari.



2010. urtera itzuliko bagenu begirada, batzuk argiago, beste batzuk lanbro fin batez estalirik, baina denok oroituko dugu DBHko lehen urtea amaitzean sentitu genuen pozak ekarri zuen iskanbila. Izan ere, ikasturte oso batez pilatuz joandako orri sorta guztiak gelaren atzealdean pilatu genituen, eta egindakoa ezkutatu nahirik, paperezko mendi batez bete genuen armairuaren atzealdea. Gelan sartu eta minutu gutxi batzuk soilik behar izan zituen Blanka Muxikak egindako estropizioaz jabetzeko; Beasaingo Idazlan Lehiaketako liburuak aurkitzeko xedean graziosoren batek armairuan gordeta zeudela gogorarazi baitzion.

Salou-Paris arteko lehian, argien hiriak irabazi zuen, eta bertan irakasleen fazeta dibertigarriena ezagutu ahal izan genuen. Angelen lehiakortasuna inoiz baino handiagoa zelarik, Euro Disneyko txalupetatik blai eginda irten ziren asko, eta ia afaldu gabe geratu ginen hamar orduko itzulera bidaiari ekin baino lehen. Esan dezakegu, Orsay museoa salbu, hobetu ezinezko bidaia izan zela.

Lurdes irakaslearekin gaztelerako lehen saioetan ikasi genuen, "El Bahul de los Recuerdos" abestian ongi esaten den bezala, iraganeko edozein momentu beti iruditzen zaigula hobea. Baina agurraren unea iristean ez du esan nahi igaro ditugun uneak idealizatu behar ditugunik, ezta gutxiago ere. Momentu guztiak ez dira onak izan, egun txarrak ere bizi izan ditugu, eta haserreak eta liskarrak presente egon dira egunerokotasunean. Dena den, oraindik nora iritsiko den ez dakigun bidaia honetan, gure oroitzapenek Ikastola ahaztu ezingo duten bezala, espero dugu beraiek ere gu ez ahaztea.



CUALQUIER TIMPO PASADO NOS PARECE MEJOR

El tiempo que nos queda en Jakintza está a punto de consumirse. Algunos comenzaron antes que otros, después vinieron los alumnos de Rumania y Ecuador, y nos dejaron siendo ya amigos. A algunos ya les hemos perdido la pista, y otros siguen a nuestro alrededor. Udai, Ainhoa, Ana, Xabi... no han podido estar en nuestro último curso, pero todos, estemos donde estemos, seguimos adelante cada día con el proyecto que estamos realizando, sin saber aun donde va a terminar.

Si retornamos la vista a 2010, mejor o peor, pero todos recordamos la alegría que sentimos y el alboroto que creamos al terminar nuestro primer curso de ESO. Y es que todos los apuntes y papeles que reunimos durante todo el curso los apilamos al final de la clase, creando una montaña de papeles detrás del armario. Blanca Mujika tardó un solo instante en darse cuenta de lo que hicimos, ya que no encontrar los libros del concurso de redacciones de Beasain le puso en alerta. Hasta que un alumno le recordó que estaban en el armario.

Los siguientes tres años transcurrieron todavía más rápido, hasta que llegó el ansiado viaje de fin de curso. París-Salou, Salou-París. Gano la ciudad de las Luces, donde pudimos descubrir la faceta más divertida de los profesores. La competitividad de Angel iba en aumento, muchos salieron empapados de los barcos de Euro Disney, y casi nos quedamos sin cenar antes de emprender el viaje de vuelta de diez horas. Podemos decir que menso el museo Orsay, fue un viaje inmejorable.

Como bien aprendimos en las primeras clases de lengua con Lurdes, y como bien dice la canción «El bahul de los recuerdos», cualquier momento pasado nos parece mejor. Pero el momento de decir adiós no significa que tengamos que idealizar los momentos, ni mucho menos. No todos los momentos han sido buenos, también hemos tenido días malos, y los enfados y las riñas han estado presentes en el día a día. Aún así, y todavía sin saber a donde llegará este viaje, nuestros recuerdos no borrarán Jakintza, y esperemos que ellos tampoco nos olviden a nosotros.

IRITSI ZAIE ERRETRETA



LOURDES

Lourdes laguna, andereñoa,
gure esker ona ta kariñoa,
zure magal xamur eroso
hamaika umen kabi goxoa.

Eta geroa
luze-luzea ta oparoa
muxu handi bat
marrubizkoa.

BIXEN

Heziketa lan eremu zelai
Jakintza sarritan ametsen sabai
Urte askotan gazteen itzai
Elkarrekin zenbat une alai
Bizitzak darrai
amets berriak marraztuz nonnahi
esnatu etaloratzeko zai.

ITZIAR

Gure Itziar lanez beteta
ingelesarekin zenbat apeta
Telebista areto tableta
zuzendu ditu mila azterketa
Orain arreta
Bizitzaren beste ariketa
ta gozatzeko hartu zuk beta

Doinua: Juana Bixenta Olabe



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
tfno. 943 16 05 40
faxes. 943 16 07 90
20240 ORDIZIA
ordizia@ikastola.net



ikastolenelkartea